

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Martxoaren 6ko 57/2024 Foru Agindua Arabako Lurralde Historikoko eremu arkeologiko edo paleontologikoetan eragina duten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzen deialdia onartzea 2024ko ekitaldirako

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak 75. artikuluan ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek, arau horren hirugarren artikuluan aurreikusitako eskumenetan oinarrituta, euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunen titularrei dirulaguntzak emateko neurriak arautuko dituzte, ondasun horien kontserbazio, zaintza, balioespen eta hedapen betebeharrak, lege horretan aurreikusiak, betetzea sustatzeko.

Aipatutako 6/2019 Legearen aurreikuspenak betetz, foru agindu honen helburua da Arabako Lurralde Historikoan jarduera arkeologiko eta paleontologikoak egiteko dirulaguntzak emateko arau esparrua arautzea, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 67. artikuluan jasotakoa oinarri hartuta, eta publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioetan oinarrituta.

Hala, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 67. artikulua ezartzen duenez, babes berezia edo ertaina duten kultura ondasunei eragiten dien edozein obra motatan proiektu arkeologiko eta paleontologikoak idazteko eta gauzatzeko finantzaketa jarduketa horien titularren kontura izango da, zuzenbide publikoko erakundeak badira. Titularra pribatua bada, dagokion foru aldundiak laguntzak emanez hartuko du parte gastuak bere gain hartzen, edo zuzenean gauzatu du proiektua, beharrezkotzat jotzen badu. Foru aldundia, dena dela, behartuta egongo da jarduera arkeologikoak hartuko duen guztizko kopuruaren ehuneko 50 ordaintzera. Azkenik, lege testu bereko 65.2 artikulua adierazten du 67. artikulua aplikatuko dela aztarna arkeologikoak daudela uste den zona, orube edo eraikinak direnean.

Lehen aipatutako maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 67. artikulua ezartzen du foru aldundiak nahitaez ordaindu behar duela haietan deskribatutako jarduketa arkeologikoaren ehuneko 50. Hori dela eta, legezko betebeharrak bat dugu aurrean, eta, horregatik, dirulaguntza emateko prozedura ez da izango norgehiagoka prozedura arrunta; izan ere, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten dirulaguntza eskaerak haien harrera dataren arabera ebatziko dira, horretarako ezarritako epearen barruan. Ondorioz, dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura lehia askeko salbuespenezko prozedura izango da, Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 20.2 artikulua hiru hiru paragrafoaren arabera.

Horretarako, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioen eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren berri emateko, foru agindu honen bidez ezartzen da zer berariazko esparru arautzailetara egokitu behar diren zona arkeologikoei eta/edo paleontologikoei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoei dirulaguntzak jaso ahal izateko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko zona arkeologikoei eta/edo paleontologikoei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoe-tarako laguntzen deialdia, ebazpen honen I. eranskinean dagoena.

Bigarrena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko zona arkeologikoei eta/edo paleontologikoei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoe-tarako laguntzetarako eskaera eredia, ebazpen honen II. eranskinean dagoena.

Hirugarrena. Honako hauek arautuko dute deialdi hau: norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak onetsi baititu (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134 zenbakia; foru dekretu hori martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen), eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoak.

Laugarrena. Foru agindu honen bidez araututako dirulaguntzak 2024rako luzatutako 2023ko ekitaldirako Arabako Foru Aldundiaren Gastuen Aurrekontuko partida hauen kargura ordainduko dira:

– 70102. G/336700/48000700 "Ondare arkeologikorako laguntzak. Pertsonak ": 10.672,07 eurokoa.

– 70102. G/336700/47900700 "Ondare arkeologikorako laguntzak. Enpresak ": 785,00 euro.

Bosgarrena. Organo eskudunak kasuan kasuko ebazpenak emango ditu gehienez hiru hilabeteko epean, eskaera bakoitza aurkezten denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Seigarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie pertsona eta erakunde eskatzaileei banan-banan, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bat etorritik Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin eta hurrengoekin, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 6a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

I. ERANSKINA

Arabako Lurralde Historikoko zona arkeologikoei eta paleontologikoei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzen deialdia

1. artikulua. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiak Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeak 65. artikulutik 67. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera aginduzkoak diren jarduera arkeologiko eta paleontologikoen kostuaren ehuneko 50 finantzatzea. Beraz, premiazko neurri arin-garrizat hartzen dira, Arabako Lurralde Historikoan dauden ondasun paleontologikoei eta babes ertain edo bereziko ondasun arkeologikoei, ustezko arkeologia zonei eta interes arkeologiko edo paleontologikoko beste edozein espazio edo elementuri eragiten dieten obrak egitearen ondorioz sortuak.

Laguntzen deialdi honek bat egiten du Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuarekin, zeinaren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailaren norgehiagoka araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

2. artikulua. Emateko prozedura

1. Dirulaguntza emateko prozedura lehia askekoa izango da, eta funtsak kreditu erabilgarria agortu arte banatuko dira, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65.2 eta 67. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu horietan ezartzen da foru aldundiak nahitaez ordaindu behar duela lege horretan deskribatzen diren jarduera arkeologiko eta paleontologikoen ehuneko 50.

2. Eskaerak harrera dataren arabera ebatziko dira, betiere deialdiaren betekizunak betetzen badituzte.

3. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako bideratutako hornidura, eta honako aurrekontu partida hauei egotziko zaie:

– Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuko 70102. G/336700/48000700 "Arkeologia ondarrerako laguntzak. Pertsonak" partida; zenbatekoa: 10.672,07 euro.

– Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuko 70102. G/336700/47900700 "Arkeologia ondarrerako laguntzak. Enpresak" partida; zenbatekoa: 785,00 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 7.1 apartatua betez, deialdiko laguntza lerro batean sortzen diren soberakinak birbanatu ahal izango dira, beste lerroa handitzeko, ekitaldi berean, betiere deialdiaren guztizko aurrekontua errespetatuz.

Deialdiari esleitutako hasierako zenbatekoari gehienez 4.000,00 euro gehitu ahal izango zaizkio, baldin eta kreditu egoki eta nahikoa badago, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. artikulua. Diruz lagundu ahal diren jarduera eta gastuak

1. Honako jarduera hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Prospekzio arkeologikoa/paleontologikoa.
- Kontrol arkeologikoa eta/edo paleontologikoa.
- Zundaketa arkeologikoa/paleontologikoa.

d) Indusketa arkeologikoa/paleontologikoak.

e) Ikerketa arkeologikoak/paleontologikoak.

f) Altxaeren azterketa estratigrafikoa.

g) Obra proiektu jakin baterako nahitaezkoztzat jotzen diren beste jarduera edo azterketa arkeologiko/paleontologiko batzuk.

Diruz lagundu ahal izango dira 2023ko urriaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra bitartean amaitutako jarduerak. Jarduera bat diruz laguntzeko modukotzat jotzeko, jarduketa arkeologiko eta paleontologikoaren prozesu guztiak amaituta egon beharko du, eta emaitzen azken memoria edo aurretiazko txostena sinatuta eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuta egon beharko dira tarte horretan.

Aurrekoa gorabehera, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, diruz lagundu ahal izango dira, halaber, aurreko deialdian (otsailaren 23ko 27/2023 Foru Aginduaren bidez onetsia) dirulaguntza eskatu duten eta aurrekonturik ez izateagatik ukatu diren jarduerak. Kasu horretan, beste dirulaguntza eskaera bat aurkeztu beharko da, baina ez da beharrezkoa izango aurretik aurkeztutako dokumentazioa berriz aurkeztea.

2. Diruz lagundu daitekeen gastu izango da diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diona eta ezarritako epean egiten dena. Diruz lagundu daitezkeen gastuek guztiz eta erabat lotuta egon beharko dute Arabako Foru Aldundiak obra proiektu bakoitzerako zehaztu duen nahitaezko jarduera arkeologiko eta/edo paleontologikoarekin. Obren garapen normalari dagozkion diruz laguntzeko moduko jarduerak berariaz justifikatuta eta merkatuko prezioen arabera tarifatuta egon beharko dute, eta kostua ezin izango da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

3. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira:

a) Arabako Lurralde Historikoaren eremua gainditzen duten jarduerak.

b) Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65.2 eta 67. artikuluen babesean egiten ez diren edo Arabako Foru Aldundiak proiektu arkeologikoa garatzeko ezarritako zehaztapen teknikoak betetzen ez dituzten jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak.

c) Jarduera arkeologiko eta paleontologikoak, baldin eta haien finantzaketa kultura ondasunei eragiten dieten jarduketan titularraren kontura bada zuzenbide publikoko erakundea izateagatik, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65.2 eta 67. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4. Ez dira diruz laguntzeko moduko gastu izango Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29. artikulua arabera berariaz kanpoan geratzen direnak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Ekipamendu ondasunak eskuratzea, horien amortizazioak ebazpen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea gainditzen badu.

b) Bankuko kontuen interes zordunak.

c) Interesak, errekarquak eta administrazio eta zigor zehapenak.

d) Prozedura judizialtako gastuak.

e) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaiteke. Kasu horretan, bai eskaeraren aurrekontuan, bai dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den aurrekontu egikaritan, gastuaren zenbatekoak adierazi beharko dira, BEZik gabe.

5. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 5.000,00 eurotik gorakoa bada eta hirugarrenekin kontratatzea badakar, pertsona edo erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzailei, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehen.

6. Foru agindu honen helburua izango da pertsona eta erakunde eskatzaileen ekintza babes-
tea eta osatzea, eta ez jarduera gauzatzearen ondoriozko gastu guztiak finantzatzea.

5. artikulua. Pertsona onuradunak eta betekizunak

1. Deialdi honetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte esku-hartze arkeologiko edo paleontologikoaren xede den lurzoru, lurzati, orube edo higiezinaren jabe diren zuzenbide pribatuko pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta ez badaude Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotako egoeretan (dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokorrak).

Eskatzaileek esku-hartzea egiteko titulu juridiko egokia eta nahikoa dutela egiaztatu beharko dute. Eskatzailea ez bada esku-hartzearen xede izan den higiezinaren, orubearen edo lurzatiaren jabea, egiaztatu behar du, zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabilita, titularraren alde aurreko baimena duela esku-hartzea gauzatzeko.

2. Deialdi honen arabera dirulaguntza jaso dezaketen esku-hartzeak jabetasun araubideko ondasunetan egin behar badira, dirulaguntzaren eskaera aurkezten duenak gainerako jabetasun araubideko esku-hartzearekiko adostasuna eta baimena aurkeztu beharko ditu, Zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez, eta, gainera, partaidetzen ehunekoak adierazi beharko ditu.

3. Deialdi honen arabera dirulaguntza jaso dezaketen esku-hartzeak jabetza horizontaleko araubidean sartuta dauden ondasunetan egiten badira, eskaerarekin batera esku-hartzea baimentzen duen jabeen erkidegoaren erabakia aurkeztu behar da, eskatzaileak higiezinaren duen partaidetzaren ehunekoak adierazita.

4. Honako hauek ezin izango dira, inola ere, mota honetako laguntzen onuradun izan:

a) Zuzenbide publikoko entitateak.

b) Erakunde publikoen partaidetza duten enpresak.

5. Eskatzaileek esku-hartze horretarako behar diren baimenak eta lizentziak lortu beharko dituzte, eta dirulaguntzen arloko foru araudian oro har ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, baita Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 66. artikulua 2., 5. eta 6. apartatuetan ezarritako aurreikuspenak ere.

6. Eskatutako betekizunak eskaeraren egunean eduki beharko dira, eta prozedura izapidetzen den bitartean eta hura ebatzi arte eutsi beharko zaie.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Eskabideak modu hauetako batean aurkeztuko dira:

a) Bitarteko elektronikoa: Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa horretarako eskuragarri dagoen inprimakia bete behar dute (<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-para-inter-venciones-arqueologicas-y-paleontologicas>) Horretarako, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoa dagoen izapide zehatzaren bitartez telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

b) Aurrez aurre, honako erregistro hauetan:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Foru Ogasunak Vitoria-Gasteizen, Laudion eta Guardian dituen bulegoetako erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta ez daudenek eskaera telematikoki edo aurrez aurre aurkeztu ahal izango dute. Azken kasu horretan, eskaerak II. eranskinean dagoen eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta.

7. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2024ko abuztuaren 31n amaituko da.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskaerekin batera ondorengo apartatuetan aipatzen diren agiriak aurkeztu behar dira:

a) Dirulaguntzaren xede den esku-hartzea egiten den higiezinaren, orubearen edo lurzatiaren jabetza tituluaren kopia (eskriturak, ohar soila edo Jabetza Erregistroaren ziurtagiria). Dirulaguntza eskatzen duen pertsona edo erakundea jabea ez bada, gainera, esku-hartzea gauzatzeko titularraren baimena aurkeztu beharko du.

b) Pertsona edo erakunde eskatzailea jabekidetasun araubideko titularra bada, gainerako jabekideen adostasuna eta baimena ere aurkeztuko ditu, eta bakoitzak duen partaidetzaren ehunekoa adieraziko du.

c) Esku-hartzeak jabetza horizontaleko araubidean sartuta dauden ondasunetan egiten bada, eskaerarekin batera esku-hartzea baimentzen duen jabeen erkidegoaren erabakia aurkeztu behar da, eskatzaileak higiezinaren duen partaidetzaren ehunekoa adierazita.

d) Esku-hartzea egiteko behar diren baimenak eta lizentziak lortu izanaren egiaztagiria. Ez da beharrezkoa izango Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak emandako baimenak aurkeztea, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea betetze aldera.

e) Laguntza hau eskatu aurretik aurkeztu beharko da esku-hartze arkeologiko edo paleontologikoaren emaitzen memoria edo aurretiazko txostena, esku-hartze horren ardura duen pertsona baimenduak egina, Arabako Lurralde Historikoko jarduera arkeologikoak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera; hala ez bada, eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

f) Diruz lagundutako jarduerak egiteak sortutako gastuen froga-agiria, behar bezala zerrendatuta. Horretarako, gastuaren fakturak edo bestelako froga-agiriak aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko justifikazio gastu gisa honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Halaber, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZaren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) konturako atxikipenen gaineko zerga araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.

g) Gutxienez hiru hornitzaileari eskaintzak eskatu zaizkiela egiaztatzen duten agiriak, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 5.000,00 eurotik gorakoa bada, eta betiere hirugarrenekin kontratatzea badakar.

h) 500,00 eurotik gorako fakturak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentazioa. Honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

– Bankuko egiaztagiria, non zehaztuko baitira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.

– Fakturaren jaulkitzaileak izenpetutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; han agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.

– Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza zentro eta autobideetakoak, bidai txartelak eta abar) edo fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigilua-rekin, adieraziz ordainduta daudela.

2. Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak administrazio eskudunean egiaztatuko ditu pertsonaren nortasun datuak eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituen. Ofizios egiaztatzeari uko egingez gero, eskatzaileak NANaren fotokopia aurkeztu beharko du (eskabidea modu ez-elektronikoan aurkeztuz gero), baita zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere. Gainera, teknologiaren garapenak Estatuko beste ogasun batzuekiko elkarreragingarritasuna ahalbidetzen ez duen bitartean, EAEko foru ogasunak ez diren beste ogasun batean zergak ordaintzen dituzten eskatzaileek ogasun horrekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

3. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoak eta horien formatua Factura-e-ko estandarren arabera izango da. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira: <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

Froga-agiri horiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkezten badira, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuko du, eta, bertan, adieraziko du espedientean sartzen diren fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela direla, fitxategi horiek eskatzailearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituela hala eskatzen zaionean.

9. artikulua. Eskaerak zuzendu edo hobetzea

1. Eskaerak osorik bete ezean edo ebazpen honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar egun balioduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

2. Nolanahi ere, aldundiko Kultura eta Kirol Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

10. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta dirulaguntzak emateko irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzua izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna. Instrukzio organoak proposamena igorriko dio, behar bezala arrazoituta, ebazteko eskumena duen organoari.

2. Dirulaguntza ematea bidezkoa izan dadin, espedientean egiaztatu beharko da pertsona edo erakunde eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela, eta egindako jarduera diruz laguntzeko moduko jardueratzat hartzen dela.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, egindako jarduerak ekarri dituen diruz laguntzeko moduko gastu justifikatuak hartuko dira oinarri, BEZik gabe. BEZa dirulaguntzaren zenbatekoan sartuko da berreskuratu edo konpentsatu ezin denean (BEZetik salbuetsita dauden jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoen edo erakundeen kasuan).

4. Gastua benetan diruz laguntzeko moduko jarduerari dagokiela egiaztatu ondoren, eta, hala badagokio, konputagarriak ez diren soberakinak araztu eta dagozkion zuzenketak eta doikuntzak egin ondoren, dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztuko da. Zenbateko hori ezin izango da izan kopuru hauetako txikiena baino handiagoa:

a) Arabako Lurralde Historikoan dauden ondasun paleontologikoei eta babes ertain edo bereziko ondasun arkeologikoei, ustezko arkeologia zonei eta interes arkeologiko edo paleontologikoko beste edozein espazio edo elementuri eragiten dieten obrak egitearen ondorioz sortu egin diren jarduera arkeologiko eta paleontologikoen kostuaren ehuneko 50.

b) Eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa, hargatik eragotzi gabe beste dirulaguntza batzuekin batera jasotzen denerako aurreikusitakoa.

11. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

1. Deialdi honetako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak helburu berberetarako sustatutako esku-hartzeetarako emandakoekin.

2. Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

3. Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntza edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaingidutako sortutako gastuen kostua.

4. Onuradunak jakinarazi egin beharko dio organo esleitzailari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin dion estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikori edo edozein entitate edo erakunde pribaturi.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol diputatuak izango du deialdia ebazteko eskumena, instrukzio organoak proposatuta.

2. Eskatzaileei ez zaie entzunaldiko izapiderik egingo, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

3. Ebazpena eman eta jakinarazteko, gehienez ere, 3 hilabete izango dira, eskaera bakoitza aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, interesdunek jakin behar dute eskaera ezetsi egin dela, nahiz eta gerora esanbidezko ebazpena eman.

4. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei banan-banan, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

13. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, laguntza emateko ebazpena onetsi ondoren. Ebazpena jakinarazi eta 10 egun igaro ondoren, Kultura eta Kirol Sailak Ogasun eta Finantza Sailean izapidetuko du ordainketa, eta pertsona edo erakunde onuradunei ez zaie inongo bermerik eskatuko.

14. artikulua. Betebehar osagarriak

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen pertsona eta erakunde onuradunek hitzematzen dute hauexek egingo dituztela:

a) Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailarekin lankidetzan jardun hala eskatzen zaionean, eta erakundearen esparruari buruzko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

b) Kultura eta Kirol Sailak, Ogasun eta Finantza Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen jarduera guztiak onartu.

c) Arabako Foru Aldundiaren babesa jaso dela adierazi, dirulaguntza eman ondoren diruz lagundutako jarduerari buruzko zabalkunde euskarri guztietan eta edozein hedabide edo aurkezpen publikotan.

d) Arabako Foru Aldundiari lagatzea, doan eta eksklusibotasunik gabe, higiezinaren irudi grafikoa eta aurkeztutako dokumentazioan jasotako informazio teknikoa erabiltzeko eskubidea, zabaldua eta/edo argitaratua izateko edozein bitarteko eta formatu bibliografikotan, ikus-entzunezketan, informatikotan edo teknika erabiltzeko aukera ematen duen edozein formatutan.

15. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

1. Deialdian edo Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 35. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez direnean, jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko dira.


2. Diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez, gehiegizko finantzaketa itzularazteko arrazoi ere izango da.

16. artikulua. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak ebatziko du deialdi honen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

17. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

Arabako Lurralde Historikoko arkeologia-eta/edo paleontologia-eremuei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzak

Ayudas para intervenciones arqueológicas y paleontológicas realizadas como consecuencia de obras que afecten a las zonas arqueológicas y/o paleontológicas situadas en el Territorio Histórico de Álava

Kultura eta Kirol Saila Departamento de Cultura y Deporte

ANEXO II. ERANSKINA

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 NAN
DNI AIZ
NIE Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea
Mujer Gizona
Hombre Ez binarioa
No binario

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefonia ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.


EGINDAKO ESKU-HARTZE ARKEOLOGIKOAK/PALEONTOLOGIKOAK ■
INTERVENCIONES ARQUEOLÓGICAS/PALEONTOLÓGICAS REALIZADAS

Non egin dira esku-hartze arkeologikoak/paleontologikoak? ■

¿Dónde se han realizado las intervenciones arqueológicas/paleontológicas?

Jardueraren kokapena ■ Localización de la actuación	
Eragindako zona arkeologikoa ■ Zona Arqueológica afectada	
Baimendutako arkeologoa ■ Arqueólogo/a autorizado/a	

Orria ■ Hoja 1/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arabako Lurralde Historikoko arkeologia-eta/edo paleontologia-eremuei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzak</p> <p>Ayudas para intervenciones arqueológicas y paleontológicas realizadas como consecuencia de obras que afecten a las zonas arqueológicas y/o paleontológicas situadas en el Territorio Histórico de Álava</p>
--	--

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Higiezinaren edo lurzatiaren jabetza ■ Propiedad del inmueble o parcela

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

<input type="checkbox"/>	Nire jabetzako eraikin/lurzati bat ■ Edificio/parcela de mi propiedad
<input type="checkbox"/>	Nire bizilagunen komunitateko elementu komunak ■ Elementos comunes de mi comunidad de vecinos
<input type="checkbox"/>	Nire jabetzakoa ez den eraikin/lursail bat, baina titularraren alde aurreko baimena dut. ■ Edificio/parcela que no es de mi propiedad, pero cuento con autorización previa de la persona titular.
<input type="checkbox"/>	Adierazi jabetzan duen partaidetzaren ehunekoa ■ Indicar el porcentaje de participación en la propiedad

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar solo en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

FINANTZA ENTITATEAK bete behar du ■ A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA	ESKATZAILEAK bete behar du ■ A rellenar por la persona SOLICITANTE
<p>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>Kontu korrontearen eskatzaileak doakion hirugarrena bera behar du izan ■ La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con la persona solicitante</p>	<p>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT ■ INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan ■ Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava.</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan ■ Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

Orria ■ Hoja 2/7



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Arabako Lurralde Historikoko arkeologia-eta/edo paleontologia-eremuei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartzeko arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzak

Ayudas para realizar intervenciones arqueológicas y paleontológicas como consecuencia de obras que afecten a los bienes arqueológicos y/o paleontológicos situados en el Territorio Histórico de Álava

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK ■ DECLARACIONES RESPONSABLES

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)


Eskatzailearen betekizunak betetzeari buruzko adierazpena ■ Declaración del cumplimiento de requisitos de la persona solicitante:

- Eskatzaileak betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko deialdian zerrendatutako baldintzak.** ■ La persona solicitante cumple los requisitos enumerados en la convocatoria para ser beneficiaria de estas ayudas.
- Ez du zehapen administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatik edo sexu-orientazioagatik diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldian).** ■ No está sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).
- Ez du konkurtso-deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaraturik, ez dago esku-hartzeko judizialaren mende edo ez dago esku-hartzeko judizialaren mende Konkurtso Legearen arabera desgaitu bada, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaikuntza-aldia amaitu gabe.** ■ No ha solicitado la declaración de concurso, no ha sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no se halla declarada en concurso, no está sujeta a intervención judicial o no ha sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
- Ez du ekarri, errudun deklaraturik izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.** ■ No ha dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, bateraezintasun-kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.** ■ No está incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.
- Egunean ditu diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak.** ■ Se halla al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
- Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkeztutako dokumentazio guztia ere.** ■ Son ciertos y completos todos los datos de la presente solicitud, así como toda la documentación presentada.

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkeztzen ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztzen ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitu ezin izango da gertaera horien berri jakiten den unetik. Sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

Orria ■ Hoja 3/7



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

Arabako Lurralde Historikoko arkeologia-eta/edo paleontologia-eremuei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzak

Ayudas para realizar intervenciones arqueológicas y paleontológicas como consecuencia de obras que afecten a los bienes arqueológicos y/o paleontológicos situados en el Territorio Histórico de Álava

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK ■ GASTOS E INGRESOS**DIRUZ LAGUNDUTAKO GASTUAK ■ GASTOS SUBVENCIONABLES**

Gastuaren kontzeptua Concepto del gasto	Hartzekoduna (IFZ eta sozietatearen izena) Acreedor (NIF y razón social)	Faktura data Fecha de factura	Zenbatekoa (BEZik gabe) Importe (sin IVA)	BEZ/ IVA

IAZKO DEIALDIAN DIRULAGUNTZA ESKATU ZEN XEDE ETA HELBURU BERERAKO ETA UKATU EGIN ZEN AURREKONTURIK EZ ZEGOELAKO ■ SE SOLICITÓ AYUDA EN LA CONVOCATORIA DEL AÑO PASADO CON ESTE MISMO OBJETO Y FINALIDAD Y SE DENEGÓ POR FALTA DE DISPONIBILIDAD PRESUPUESTARIA


 BAI ■ Sí

 EZ ■ NO
ESKATUTAKO EDO EMANDAKO BESTE LAGUNTZA BATZUK ■ OTRAS AYUDAS SOLICITADAS O CONCEDIDAS

Adierazi xede eta helburu bererako Arabako Foru Aldundiak edo beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuek emandako laguntzarik edo diru-laguntzarik eskatu eta/edo jaso dituen: ■ Indicar si ha solicitado y/o recibido otras ayudas o subvenciones con este mismo objeto y finalidad concedidas por la Diputación Foral de Álava u otras administraciones públicas o entidades privadas:

Laguntza zer erakunderi eskatu zaion ■ Entidad a la que se ha solicitado la ayuda	Diruz lagundutako kontzeptua ■ Concepto subvencionado	Eskatutako zenbatekoa (BEZaren banakapenarekin) ■ Importe solicitado (con desglose de IVA)	Emandako zenbatekoa (BEZaren banakapenarekin) ■ Importe concedido (con desglose de IVA)

Orria ■ Hoja 4/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arabako Lurralde Historikoko arkeologia-eta/edo paleontologia-eremuei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzak</p> <p>Ayudas para realizar intervenciones arqueológicas y paleontológicas como consecuencia de obras que afecten a los bienes arqueológicos y/o paleontológicos situados en el Territorio Histórico de Álava</p>
--	---

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

ESKATZEN DU:

Jardun arkeologikoak sortutako gastuaren % 50i dagokion dirulaguntza, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 67 artikulua betez.

Beste kopuru bat (gastuen % 50 gehienez):

SOLICITA:

La subvención correspondiente al 50% de los gastos derivados de dicha actuación arqueológica, en cumplimiento del artículo 67 de la Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasco.

Otra cantidad (máximo el 50% de los gastos):

KULTURA ZUZENDARITZAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO POR LA DIRECCIÓN DE CULTURA:

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean: ■ De acuerdo con la normativa aplicable, la Dirección de Cultura comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- **Zerga betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ■ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- **Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ■ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- **Eskatzailearen nortasun datuak** ■ Datos de identidad de la persona solicitante.

Aipatutako datuak ofizioz egiaztatzeari uko egin nahi diozu? ■ ¿Desea oponerse a la comprobación de oficio de los datos mencionados?

- Ofizioz zerga betebeharrak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio del cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Ofizioz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio del cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Ofizioz eskatzailearen nortasun datuak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona solicitante.

Aurka eginez gero, deialdiaren oinarrietan eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu ■ En caso de oponerse deberá aportar todos los documentos requeridos en las bases de la convocatoria.

Orria ■ Hoja 5/7



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Arabako Lurralde Historikoko arkeologia-eta/edo paleontologia-eremuei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartzeko arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzak

Ayudas para realizar intervenciones arqueológicas y paleontológicas como consecuencia de obras que afecten a los bienes arqueológicos y/o paleontológicos situados en el Territorio Histórico de Álava

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Datuak babesteko oinarritzko argibidea:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "T11 AFA-ren museoetako erabiltzaileen eta ikertzaileen erregistroa" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Arabako Foru Aldundiko museoetako arte, historia eta arkeologia arloko interesdun eta ikertzaileen datu basea kudeatzea.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, legez ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOK aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz – Araba).

Argibide gehiago:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Información básica sobre protección de datos:

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de "T11 Registro de personas usuarias e investigadoras de museos" para la finalidad de gestionar la base de datos de personas interesadas, investigadoras en el ámbito artístico, histórico y arqueológico de los museos de Diputación Foral de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

Onesten dut Arabako Foru Aldundiak nire datu pertsonalak kudeatu ditzala dirulaguntza honen kudeaketa egiteko. ■ Acepto que Diputación Foral de Álava gestione mis datos personales para realizar la gestión de esta subvención.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA:

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- Jabetza-tituluaren kopia.** ■ Copia del título de propiedad.
- Titularraren baimena (hala badagokio).** ■ Autorización de la persona titular (si procede).
- Gainerako jabeekideen baimena (hala badagokio).** ■ Autorización de las demás personas copropietarias (si procede).
- Jabeen erkidegoaren erabakia (hala badagokio).** ■ Acuerdo de la comunidad de propietarios/as (si procede).

Orria ■ Hoja 6/7



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

**Arabako Lurralde Historikoko arkeologia-eta/edo paleontologia-
eremuei eragiten dieten obren ondorioz egindako esku-hartze
arkeologiko eta paleontologikoetarako laguntzak**

Ayudas para realizar intervenciones arqueológicas y paleontológicas como consecuencia de obras que afecten a los bienes arqueológicos y/o paleontológicos situados en el Territorio Histórico de Álava

Kultura eta Kirol Saila Departamento de Cultura y Deporte

- Esku-hartzea gauzatzeko behar diren baimenak eta lizentziak.** ■ Autorizaciones, licencias y permisos necesarios para llevar a cabo la intervención.
- Esku-hartze arkeologiko edo paleontologikoaren emaitzen aurretiazko txostena edo memoria.** ■ Informe preliminar o memoria de los resultados de la intervención arqueológica o paleontológica.
- Egindako gastuaren faktura (k).** ■ Factura/s del/os gasto/s realizado/s
- Egindako gastuaren faktura (k) ordaindu izanaren banku-egiaztagiriak, 500 eurotik gorakoak.** ■ Justificantes bancarios del pago de los gastos de importe superior a 500 euros.
- Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa 5.000,00 eurotik gorakoa bada, hornitzaile desberdinek gutxienez hiru eskaintza eskatu dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.** ■ Documentación acreditativa de la solicitud de un mínimo de tres ofertas de distintos proveedores, si el importe del gasto subvencionable supera el importe de 5.000,00 euros.
- NANaren kopia.** ■ Copia del DNI.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen dokumentazioa** ■ Documentación acreditativa de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egiaztatzen dokumentazioa** ■ Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social